

2023/03/31

2023/09/03

SAHATSA JAUREGI

B I L D U M A

“Flux Coreq”

CLARA LÓPEZ MENÉNDEZ

ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN / EXHIBITION

Komisarioa / Comisaria / Curator
CATALINA LOZANO

Erakusketaren koordinazioa / Coordinación de la
exposición / Exhibition coordination
YOLANDA DE EGOSCOZABAL

Koordinazio-laguntzaileak / Asistencia a
Coordinación / Coordination Assistance
IBAI SCANBIT

Diseinu grafikoa / Diseño gráfico / Graphic Design
GORKA EIZAGIRRE

Muntaketa / Montaje / Installation
ARTEKA

Aseguruak / Seguros / Insurance
ZIHURKO

ARGITALPENA / PUBLICACIÓN / PUBLICATION

Diseinua eta maketazioa / Diseño y maquetación / Design
and Layout
GORKA EIZAGIRRE

Argitalpenaren koordinazioa / Coordinación de la
publicación / Publication Coordinator
YOLANDA DE EGOSCOZABAL

Testua / Texto / Essay
CLARA LÓPEZ MENÉNDEZ

Testuen edizioa / Edición de textos / Copyediting
M^a JOSE KEREJETA (ES)

Itzulpena / Traducción Translation
M^a JOSE KEREJETA (ES>EU)
PETER SOTIRAKIS (ES>EN)

Inprimategia / Imprenta / Printing
DIPUTACIÓN FORAL DE ALAVA

Testuen eta itzulpenen © / © de los textos y las
traducciones / © of essays and translations
EGILEAK / LOS AUTORES / THE AUTHORS

Irudien © / © de las imágenes / © of photographs
EGILEAK / LOS AUTORES / THE AUTHORS

Edizio honen © / © de esta edición / © of this edition

Artium Museoa
Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa
Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco
Museum of Contemporary Art of the Basque Country

ISBN: 978-84-126225-8-4

Lege gordailua / Depósito legal / Legal deposit:
LG G 00147-2023

Ale kopurua / Número de ejemplares / Number of copies
1.000

Vitoria-Gasteizen, 2023ko martxoaren 31tik irailaren 3ra Artium Museoan, Euskal Herriko Arte Garaikidearen
Museoan, ikusgai egon zen Sahatsa Jauregiren *Flux Cored* erakusketaren harira egin da argitalpen hau.

Esta publicación se realiza con motivo de la exposición *Flux Cored* de Sahatsa Jauregi producida en el Museo de
Arte Contemporáneo del País Vasco, Artium Museoa, que tuvo lugar en Vitoria-Gasteiz del 31 de marzo al 3 de
septiembre de 2023.

This edition has been published to mark the exhibition *Flux Cored* by Sahatsa Jauregi produced at Artium Museoa,
Museum of Contemporary Art of the Basque Country, which was held in Vitoria-Gasteiz from 31 March to 3
September 2023.

Testuinguruak bilduma batetik abiatuta

B I L D U M A

Testuinguruak bilduma batetik abiatuta erakusketa programa bat da, duela gutxi museoaren funtsetan sartu diren artisten ekoizpena ezagutaraztea xede duena. Artium Museoa Bilduma, ia 2.800 artelanez osatutako izaera publikoko funts garaikide aparta, ezagutzera ematea helburu duten beste ekimen batzuekin bat egiten du proposamen honek.

Esparru horretan, artelanak, dokumentuak eta artxiiboak museo-funtsetan sartzek gaur egun artearen arloan garatzen ari diren eztabaidak eta praktikak aztertzen eta horien berri ematen laguntzen du. Hori da, dudarik gabe, museoaren funtsezko eginkizunetako bat: ondare garaikidearen ekoizpena sustatzea eta artistak eta haien ekoizpenak bultzatzea.

Museoaren erosketa-programak helburu hori lortzen laguntzen du, eta, gainera, ezinbesteko tresna da dinamismoa eta konplexutasuna ezaugarri dituen une bat zertan den jakiteko. Espero dugu ekimen honek publikoan eta praktika artistikoen topagune gisa funtzionatzea, bertatik gure orainari begiratzeko eta hura atzematen saiatzeko estrategia berriak lantzeko.

Contextos desde una colección es un programa de muestras cuyo objeto es dar a conocer la producción de artistas que recientemente han entrado a formar parte de los fondos del museo. Esta propuesta se suma a otras iniciativas que tienen como finalidad dar a conocer la Colección Artium Museoa, un excepcional fondo contemporáneo de carácter público integrado por casi 2.800 obras de arte.

En este marco, la incorporación de obras, documentos y archivos a los fondos museográficos contribuye a explorar y a dar cuenta de los debates y las prácticas que se están desarrollando en el campo del arte en el momento presente. Esta es, sin duda, una de las funciones fundamentales del museo: fomentar la producción de patrimonio contemporáneo e impulsar a los y las artistas y sus producciones.

El programa de adquisiciones del museo contribuye a este objetivo, y es además una herramienta indispensable para tomar el pulso a un momento caracterizado por su dinamismo y su complejidad. Esperamos que esta iniciativa funcione como un lugar de encuentro entre públicos y prácticas artísticas desde el que elaborar nuevas estrategias para mirar y tratar de aprehender nuestro presente.

Contexts from a Collection is a series of exhibitions that aims to showcase the works of artists that have recently been added to the collection. Together with other initiatives, the aim of this series is to raise awareness of the Artium Museoa Collection, an exceptional contemporary public collection comprising almost 2,800 works of art.

Within this context, the incorporation of pieces, documents and archives into the museum's collection of artworks helps to explore and recount the debates and practices currently taking place in the field of art. This is undoubtedly one of the museum's most important functions: to encourage the production of contemporary legacy and to foster artists and their productions.


Artium Museoa's programme of new acquisitions helps achieve this goal and is also an essential tool for keeping a finger on the pulse of a moment characterised by its vitality and complexity. We hope that this initiative functions as a meeting point between audiences and artistic practices from which to develop new strategies for seeing and trying to understand our present.

«ESKULTURA LAUA»-REN INGURUKO OHARRAK. -9
ETORKIZUNA ETA MUGIMENDUA

NOTAS ALREDEDOR DE UNA «ESCULTURA LLANA». -19
FUTURO Y MOVIMIENTO


NOTES ON "PLAIN SCULPTURE": -29
FUTURE AND MOVEMENT

Clara López Menéndez



«ESKULTURA LAUA»-REN INGURUKO OHARRAK. ETORKIZUNA ETA MUGIMENDUA

Clara López Menéndez




Zer da «eskultura laua»?

Laua: horizontala, zorutik hurbilekoa; laua: herrikoia, artisautzarik gabea; laua: zapala eta horren erakoak.

I Eskultura laua edozein gizakiren bulkada sortzaile, konbinatorio, ludiko eta estetikoak sortzen dena da; batzuetan, ezta hori ere.

Objektu bakoitzari patxadaz begiratzen zaionean, objektu horrek behar duenari erreparatzen zaionean, animismotik hurbil dagoen jarrera batetik lan egiten denean, jarrera horrek adierazten du objektuak bere arima duela eta artistaren eginkizuna aurreiritziak alde batera utzi eta eskakizun horiei erantzutea baino ez dela.

(Sahatsa Jauregi, eskuizkribua)



Garaje baten zoruan aurkitutako erliebe formatuko eskultura lau baten adibidea. Argazki-dokumentazioa.

II Eskultura laua subjektu eragile batek proposatzen du («artista» batek, alegia). Hala ere —kokapenagatik, kultura-testuinguruagatik eta osotasun materialagatik—, ez da «arte-pieza»-ren balorazio-sisteman sartzen; aitzitik, haren periferia erradialean kokatzen da, multzotan (objektu isolatuak izan beharrean) aurkeztu ohi diren apaindurazko

objektuen kategoria osoarekin partekatzen duena. Azken hauen funtzioa esanahi sozialaren, plazer estetikoaren eta subjektu eragileak objektuari eragiten dion fetitxizazioaren (identifikazioa/proiektzioa) artekoa da.

«Agentzia» egotz dakieke kausazko sekuentzia partikularrak eragiten dituzten pertsoneri (eta gauzei), hau da, ekintza mentalek, nahimenek edo intentzioek eragindako gertakariak, egitate fisikoen kateatze hutsez gertatu beharrean. Agentzeak «gertakariak gertarazten» ditu bere inguruan. Agentziaren

ondorioz, zenbait gauza gertatzen dira, ez beti agenteak «nahi» zituenak. Ere mu fisikoan eta materialean kausa-efektu kateak, azken batean, unibertso osoa gobernatzen duten legeen bidez azal daitezkeen «egitateak» diren bitartean, agenteek beren asmoen ondorioz «abiarazten» dituzten «ekintzak» eragiten dituzte. Kausazko gertakarien iturria, jatorria dira, unibertso fisikoaren egoeratik aparte.

(Alfred Gell, *Arte Agencia*, 48. or.)

III Eskultura lau erregistro estetiko-sozial gisa sortu zen, artea eta modernitate eurozentrikoaren berezko espiritualtasuna bereizi ondoren. Materialki eta sinbolikoki, eskultura lauak ezaugarri asko ditu: etxeko aldareak, santuei eta hildakoei egiten zaizkien eskaintzak edota ausaz edo dibinitatearen eta haren inguruko kultuaren ondorioz sortutako irudi erlijiosoak (Hidalgoko Metroko Ama Birjina Mexiko Hirian, adibidez). Objektu horien izaera espiritual eta animista kulturaren aldetik arbuatu zenean —jada ez baitago mamurik, ez Jainkorik, ez Ama Birjinik, ez meigarik—, entitate horiei emandako boterea objektuetara transferitu zen, eta kredo kapitalistak ematen die boterea —Elizak erlikia katolikoei eta magiak kosmogonia animistari bezala—, nahiz eta biei bizia ematen dieten logikak bere horretan mantendu.

Har dezagun, esate baterako, gizakien eta ibilgailuen arteko harremana. Autoa ondasun bat eta garraio bide bat besterik ez da; berez, ez da jabearen ez autoaren beraren agentziaren *locus* bat. Hala ere, autoa daukanari asko kostatzen zaio bere gorputzaren zati gisa ez ikustea, eta hori bere gizarte-agentziarekin finkatzen du beste gizarte-eragile batzuen aurrean. [...] Autoa ez da jabearen agentziaren *locus* bat eta besteen agentziak —gidari txarrak, bandaloak— eragin diezaiokeen bide bat bakarrik, baita autoaren agentzia «autonomo» baten *locus* delakoa ere. [...] Adibidez, nik badut Toyota bat, guztizko maitasuna baino halako estimu bat diodana, baina Toyotak auto «zentzudunak» eta grinarik gabeak direnez, nireari ez zaio axola. [...] Baldin eta —Jainkoak ez ahal du nahiko—, gauaren erdian, artean etxetik urrun, matxuratuko balitz, goi mailako traiziotzat hartuko nuke; bera izango litzateke, eta ez beste inor, errudun pertsonal eta moral bakarra, ez ni, eta ez konpontzen duen mekanikaria.

Arrazionalki, badakit pentsatzeko modu hori arraro samarra dela, baina, era berean, autoen jabeen % 99k nortasuna egozten die beren ibilgailuei, nik bezala, eta irudipen horiek makinaren mundu batean *modus vivendi* asegarri bat lortzen laguntzen dute. Berez, halako «sinesmen erlijioso» bat da —ibilgailuen animismoa—, eta onartu egiten dut, «automobilaren kulturaren» parte delako.


(Alfred Gell, *Arte y Agencia*, 50. or.)

Eskultura lauak ez dauka balio erlijioso edo espiritual zehatzik. Hala ere, egiten duenak edo jasotzen duenak ematen dion esanahi sinbolikoa «balio sentimental» gisa aipatzen den kategoria horren inguruan dabil.

IV *Ready made* delakoak ez bezala (kasu horretan, objektu konbentzional bat, eta askotan industrialki ekoiztua, kulturalki «artistiko» gisa adierazten den espazio batean sartzen da, eta, beraz, «artelan» bihurtzen da horrek dakartzen ondorio ekonomiko eta sozialekin), eskultura lauak gauza funtzionalak (edo ez) hartzen ditu, batzuetan naturalak edo organikoak, eta helburu estetiko-sentsorial-kontenplaziozkoarekin elkartzen ditu, baina arte gisa duen esanahiagatik gaitu gabe.

V Absurdoa, kontrastea, erresonantzia morfologikoa, ustekabeko justaposizioa eta poetika poetikoa dira eskultura lauak osatzen duten zatien artean sortzen diren harreman mota batzuk. Obra horiek osatzen dituzten askotariko materialak —eskuz egindako objektuak eta objektu industrialak barne hartzen dituztenak—, eraikuntza-bloke trukagarriak eta helburu estetikoak dira aldi berean.

Etxean aurkitutako eskultura lauaren adibide bat.



Diruaren adierazpen esplizituak bakarrik justifika dezake ibilgailu baten engranaje mekaniko konplexu eta funtzionalari *car mascot* delakoa, apaingarri bitxi hori, gehitzea. Baina autodeterminazio-ariketa horrek alderdi poetiko zabalagoa ere izan dezake, eta esan dezakegu, itsasontzietako

brankako irudiek bezala, hauek ere ibilgailuak aurrerantz bultzatzeko eginkizuna izan dezaketela.

(Sahatsa Jauregi, autoen aurreko panelean jarri ohi diren irudixoei buruz. Eskuizkribua)

VI Eskultura lauak zoriarekin eta planteatu gabeko erreberberazio formalekin jolasten du, baina ez da horren emaitza, artistak nahita egindako sorkuntza-eta konposizio-ariketa baten emaitza baizik. Eskultura lau itxura duten mihiztadurak egon arren —halaber hiri-ingurunean—, erakunde estetiko gisa sortutakoak eta kulturalki tratatutakoak bakarrik sailka daitezke talde horretan.



Arantzazura sarritan joan ohi zirenentzat paisaiaren parte izatera iritsi omen ziren.


Era berean, zenbait instantzian, gaiaren berrantolaketa —hasierako asmoak gainditzen dituen multzo batean— eskultura lau gisa interpreta daiteke, forma edo erabilera material baten bertikaltasunean esku hartzen baita, eta horrek zaildu egiten ditu «goi mailako kulturaren» konnotazioak, eta ulergarriago egiten du «hartzaile» orokorrarentzat. Oteizaren apostoluen 15 urteko siesta Arantzazuko arekan eskultura lau gisa, adibidez.



VII Eskultura laua, beraz, politikoki horizontala den forma eskultoriko gisa irudikatzen da. Eskulturaren material tradizionalak eta haien konnotazio kulturalak baztertu edo galdu egiten dira, inguratzen gaituen ikusizko ahalmena zintzotasunez eta ludikoki aztertzen duen estetika baten bila: eklektizismoaren estetika, aniztasun materikoarena, irudikapenarena, artifizioarena, imitatutako ehundurarena edo euskarritik bereizitako irudi teknikoarena.

Behaketa eta elkarbizitza luzearen ondoren aurkitutako zatiz egindako *collage* gisa eraikitako eskulturak dira, eta objektuen ezaugarri morfologiko eta materialen ondorioz elkartzen dira beste batzuekin. Irudi berri bat sortzen da, non bai baitirudi zatiak ia desegin egiten direla, eta batzuetan zaila izaten da gauza bakoitza zer den bereiztea.

VIII Eskultura lauak lexikoa partekatzen du erakusleioarekin, frisoarekin, aldizkariarekin eta *scroll* delakoarekin, eta, aldi berean, guztien aurretik doa eta guztiak gainditzen ditu. Iruzkun garratz gisa, kritika egiten du «aipamen aldatua»-ren bidez. Bitarteko eta hizkuntza komertzialetan, espiritualetan eta oroitzapenezkoetan bilatzen du inspirazio-iturria, baina ez ditu errepikatzen, komentatzen baizik. Eta iruzkin hori herrikoitasunaren matrizean kokatzen da, ahozko ingurune jariakor horretan garatzen baitu eskultura lauak bere distira adierazgarria. «Klub kidak putibuelta bat eman ez pitiak erretzen eta festara iritsi berri den “leatheron”-a “fitxatzen”». «Gela ilunean izerdi usaina dago eta eskuak ugaltu egiten dira». «Txertatu zure elkarrekin hemen», artistak denak nahi ditu». «Zapa» batzuk geure egiten ditugun bezala, bigarren



larru bihurtzen den jaka bat —metonimia kapitalistaren barruan denok jokatzeko dugun «zatia osoaren orde»—, semiotika iheskorreko objektu horiek ihes egiten digute kontsumo-ondasun gisa duten hasierako esanahitik harago. Erretaulara igaro dira eta zirikatzen dituzte anima ditzagun, pixka batean entreteni ditzagun.

Sahatsa Jauregi
Los Fumadores
2020

IX Dorre falokratiko eta monolito ulertezinez nekaturik, eskultura lauak berriketa eta erotismoa proposatzen ditu. Masa-ekoizpenaren, erakusleioaren, atsegín eskopikoaren eta narratiba objetualizatuaren sedukzioa, baina atzeko aurrera. Mihiztadura paretatik, beira-arasatik, kutxatik eta euskarritik askatu da, eta kontsumo-gizarteak eskaintzen dituen aukera «infinituak» markatutako begiztan sartu da.

Koaderno horiek eta ondoren sortutako eskulturek *amateur* egikerari, distirari eta hautsari lotutako zerbaitetan jartzen dute interesa. Bertute horiek subjektuaren eta haren inguruaren arteko nolabaiteko funtsezko harremana erakusten dute agian. Hortik dator apaindurarekiko, berriki zaharkituarekiko, objektuen arteko lotura apetatsuekiko nire interesa. Logikarekikoa ere bai. Haren filia eta fobiekikoa. Denda zaharkituen (ez zaharren) erakusleihoak, Ikea aurreko etxeetako dekorazioak, baloi bat garaikur baten barruan, putetxeen iruditeria, alferreko objektuak, objektuen zatiak, erabilera bikoitzeko objektuak, apaingarridun apalak, bitxiak erakusteko standak, nerabeen gelak, material nobleak imitatzen dituzten material pobreak edo milanuncios.com bezalako salerosketa-orrietako argazkiak.

(Sahatsa Jauregi, <https://bilbaoarte.org/Artists/sahatsa-jauregi/>)



Sahatsa Jauregi
Su Tu Tumba
2017

Algoritmoak hobeto
egingo luke



X Eskultura laua, beraz, beti irakur daiteke nahi gabeko autoerretratuaren, erakusleho komertzialaren, irudi espiritualaren, fetitxearen eta jatorri zalantzagarriko dekorazio-iruditxoaren arteko gorabeheran.

Totem esekitoki fantasma, irudi esekia, arropa-iragarkien interpretazio surrealistik Instagramen, oihartzun berriak sortzean multzoak animatzen dituen artistaren borondate estetikoak perbertitutako algoritmoaren konbinazioa, objektuen arteko elkarriketa intimorako iradokizunak.



Gainjartzearen
ondoriozko
eskultura
lau kolektibo
erliebeduna.

XI Eskultura laua autorretratutzat jotzen da, biltegiko apalategiaren intimitatearekin, globalizazioak errazten duen hurbiltasunarekin eta horrek dakartzan materialen eskuragarritasunarekin jolasten baitu; eta baita lurra harrietatik hurbil egotearekin, entropiaren poetikarekin eta guztiak lotzen dituen hautsarekin ere. Eskultura laua beti dago inguruan dagoenaz osatuta, eskuragarri dagoenaz, bai lurraren arrasean, bai mahai gainean. Materiaren, kokalekuaren, proposizioaren eta subjektuaren arteko hurbiltasun horretan, eskultura lauaren sortzaileari buruzko hamaika informazio gordetzen da.

XII Eskultura laua arte gisa definitzen duten lekuetan

sartzen denean, argi dago hura osatzen duten oinarritzko printzipioen perbertsio bat dagoela (horrek ondorio praktikoetarako ia erabat deuseztatzen du bere izaera horizontala): maila politikoan, «arte» kategoria «ikusleria» kategoriatik bereizten baita arte-objektuen sisteman, objektua eskuraezin gisa kokatzen duen hesi ikusezin eta gaindiezin baten bidez; maila fisikoan, horrelako establezimenduetako objektuak beste objektu batzuen gainean eraiki ohi direlako (hitzez hitz), haien menderatze sinbolikoa bisualki azpimarratuz eta, aldi berean, haiek bereiziz, desiragarriago/baliotsuago bihurtuz (baita jendeak haiek ikusteko tolestu beharrik izan ez dezan ere, zutik ikus ditzan, «subjektu pentsatzaileak» lau oinean jarri behar izan ez dezan). Bere alde, eskultura lauak berezko joera horizontala du iradokizun eta materialei dagokienez. Eskultura lauak plano partekatzen du «zurekin», ikusleei dei egiten die modu herrikoi batean, begietara, maila berean, lotsagabe begiratzen duen sedukziora jokatuz. Ez goitik, bada ezpada ere, pixka bat behetik, makurtu zaitezten eta sirena batek bezala deitzen dizun hori gertutik hobeto ikus dezazun. Eskultura lauak «eskuekin ikustera» gonbidatzen du, bazar bateko edo Corte Ingleseko apalak bezala, maitale baten larrua bezala. Subjektu-entzuleak eskultura lauarekin elkarreraginean aritzeko izan dezakeen irekitasun potentzial hori, kontenplazio pasibotik harago dagoen

arte-objektu den aldetik, horizontaltasuna (ukimenarena, jolasarena, jakin-minarena) Artearen bertikaltasunaren barruan iragazten den arrakala da.

XIII Eskultura laua argazki bidez

«aipa» edo deskriba daiteke, azalpen-helburuekin, baina benetan existitzeko, bizitza


errealean esperimentatu behar da, errealtate sentigarrian; izan ere, bestela eskultura-izaera galtzen baitu eta bere hizkuntza-formulazioa poetika materialik gabea bihurtzen baita; bere inertzia komertzialik eza banaketa eta balorizazio kapitalistaren bilbadurara bideratzen da konpresioaren bidez, bere jpeg-era murriztuz. Jakina, testu honek hainbat itzulpen grafiko ditu (edo Juan Antonio Ramírezek «aipu grafikoak» deitu zituenak), eskultura lauaren instantzia batzuetakoak eta besteetakoak. Egileak lizentzia hau onartu du, betiereko adierazpen artistiko eta kultural baten ezaugarri orokorrak argitzeko.



Sahatsa Jauregi eta Julià Panadès beren eskulturen lautasuna probatzen.

XIV Eskultura lauak artea hondamendi kapitalista eta postmodernora darama; hautsez beteta dago baina hori bizitzea egokitu zaigu eta, zortea badugu, berreraikitzea.

NOTAS ALREDEDOR DE UNA «ESCULTURA LLANA». FUTURO Y MOVIMIENTO



Clara López Menéndez

¿Qué es la «escultura llana»?

Llano como horizontal, cercano al suelo, llano como popular sin artesanía, llano como plano y sus juegos.

I Escultura llana es aquella que surge del impulso creativo, combinatorio, lúdico y estético de cualquier ser humano, a veces ni siquiera.

«Cuando se contempla con calma cada objeto y se atiende a lo que ese objeto necesita, cuando se trabaja desde una actitud cercana al animismo la cual expresa que el objeto tiene una especie de alma propia y que la función del artista no es más que dejar de lado sus prejuicios y atender a estos reclamos».

(Sahatsa Jauregi, escrito de la artista no publicado)



Documentación
fotográfica de
un ejemplo de
escultura llana en
formato relieve,
encontrada en el
suelo de un taller
mecánico.

II La escultura llana es propuesta por un sujeto agente (lo que viene a ser una «artista»). Sin embargo —por su emplazamiento, contextualización cultural e integridad material— no se inscribe en el sistema de valoración de la «pieza de arte», sino que se sitúa en su periferia, radial que comparte con toda una categoría de objetos ornamentales que se suelen presentar en conjuntos (en vez de objetos aislados) y cuya función oscila entre la significación social, el placer estético y la fetichización a la que el objeto es sometido por el sujeto agente (identificación / proyección).

Se puede atribuir agencia a aquellas personas (y cosas) que provocan secuencias causales de tipo particular, es decir, sucesos causados por actos mentales, de voluntad o de intención, en lugar de por simple concatenación de hechos físicos. El agente es quien «hace que los sucesos ocurran» en su entorno. Como resultado de ejercer la agencia,

sucedan cosas, que no necesariamente tienen que ser las que «quería» el agente. Mientras que las cadenas de causa-efecto en el terreno físico y material consisten en «hechos» explicables por medio de leyes que, en última instancia, gobiernan el universo entero, los agentes provocan «acciones» que «inician» ellos mismos por sus propias intenciones. Son la fuente, el origen, de los sucesos causales de manera independiente al estado del universo físico.

(Alfred Gell, *Arte y Agencia*, p. 48)

III La escultura llana surge como registro estético-social tras la disociación del arte y la espiritualidad propia de la modernidad eurocéntrica. Material y simbólicamente, la escultura llana comparte muchas características con altares caseros, ofrendas a santos y difuntos o imágenes religiosas surgidas fruto del azar o la divinidad y su culto circundante (la Virgen del Metro de Hidalgo en Ciudad de México, por ejemplo). Una vez el carácter abiertamente espiritual y animista de estos objetos fue culturalmente denostado —porque ya no hay fantasmas, ni dios, ni la virgen, ni las meigas— el poder otorgado a esas entidades se transfirió a los objetos, siendo el credo capitalista el que los imbuye de poder, a diferencia de la Iglesia con la reliquia católica o la magia en la cosmogonía animista, aunque muchas de las lógicas que animan a ambos se mantengan descuidadamente intactas.

Tomemos, por ejemplo, la relación entre los humanos y los automóviles. Un coche es solo un bien y un medio de transporte; intrínsecamente no es un *locus* de agencia ni del dueño ni del coche mismo. Sin embargo, a quien tiene el automóvil le cuesta mucho no verlo como una parte de su cuerpo, algo a lo que imprime con su propia agencia social ante otros agentes sociales. [...] El automóvil no es solo un *locus* de la agencia del dueño y una vía a través de la que puede afectarle la agencia de los otros —malos conductores, vándalos— sino también un *locus* de agencia «autónoma» del coche en sí mismo. [...] Por ejemplo, yo tengo un Toyota al que profeso cierta estima más que un amor absoluto, pero, como los Toyota son coches «sensatos» y ciertamente desapasionados, al mío no le importa. [...] Si, Dios no lo quiera, se averiara en mitad de la noche todavía lejos de casa,

lo consideraría un acto de alta traición cuyo único culpable personal y moral, para mí, sería él y nadie más, ni yo ni el mecánico que lo revisa. Racionalmente, sé que esa forma de pensar resulta un tanto extraña, pero también que el 99 por ciento de los dueños de coches atribuyen una personalidad a sus vehículos igual que yo, y que esas imaginaciones contribuyen a un *modus vivendi* satisfactorio en un mundo de máquinas. En efecto, se trata de una forma de «creencia religiosa» —animismo vehicular— que acepto porque forma parte de la «cultura automovilística».

(Alfred Gell, *Arte y Agencia*, p. 50)

La escultura llana no tiene un valor religioso o espiritual definido. Sin embargo, el significado simbólico otorgado por quien la hace o recibe merodea los límites de esa categoría comúnmente referida como «valor sentimental».


IV Contrario al *ready made*, en el que un objeto convencional y a menudo industrialmente producido es introducido en un espacio culturalmente significado como «artístico» y por tanto es transmutado en «obra de arte» con las implicaciones económicas y sociales que eso conlleva, la escultura llana toma cosas funcionales (o no), a veces naturales u orgánicas, y las conjuga con un fin estético-sensorial-contemplativo pero no cualificado por su significación como arte.

V Absurdo, contraste, resonancia morfológica, yuxtaposición inesperada y poética poética son algunos de los tipos de relaciones establecidas entre las partes que componen la escultura llana. Los materiales diversos que componen estas

obras, y que suelen incluir objetos manufacturados e industriales, son a la vez bloques constructivos permutables y fines estéticos en sí mismos.

Solo la manifestación explícita del dinero puede justificar la incorporación del *car mascot*, ese elemento decorativo

Un ejemplo de escultura llana encontrado en el entorno doméstico.




caprichoso al complejo y funcional engranaje mecánico de un coche. Pero ese ejercicio de autodeterminación puede tener también un aspecto más poético, y podemos decir que, al igual que las figuras de proa de los barcos, estas figuras pueden cumplir la función de propulsar los vehículos hacia adelante.

(Sahatsa Jauregi a propósito de las figuritas que se colocan por lo general en el salpicadero de los coches. Escrito de la artista no publicado)

VI La escultura llana juega con el azar y las reverberaciones formales no planteadas pero no es fruto de este, sino de un ejercicio creativo-compositivo intencional por parte de la artista. Aunque haya ensamblajes que casualmente se dan en el entorno urbano y que pueden parecer escultura llana, solo aquellos generados y culturalmente tratados como entes estéticos son clasificables como tal.

También hay instancias en las que la reorganización de la materia en un conjunto que excede sus intenciones iniciales puede interpretarse como escultura llana, al ser intervenida la verticalidad con la que estaba concebida una forma u uso material, lo cual complica sus connotaciones de «alta cultura» y la hace más asequible a un sentido general de «audiencia». La siesta de 15 años de los apóstoles de Oteiza en la cuneta de Arantzazu como escultura llana, por ejemplo.



Cuentan que, para los asiduos a Arantzazu, llegaron a formar parte del paisaje.

VII La escultura llana se imagina entonces como una forma escultórica políticamente horizontal. Existe un rechazo o pérdida de los materiales tradicionales de la escultura y sus connotaciones culturales en busca de una estética que explore honesta y lúdicamente la potencialidad visual que nos rodea: la estética del eclecticismo, de la multiplicidad matérica, de la representación, el artificio, la textura imitada, la imagen técnica divorciada de su soporte.




